
2.1. AURREKARI HISTORIKOAK

Transexualitatearen fenomenoak kultura eta erlijio guztietan gertatu eta onartu izan da Gizateriaren historia osoan, eta ohiko moduan, espiritualtasunaren eta/edo erlijioaren esparruarekin lotu izan da. Babiloniarren Hammurabi-kodean aurki ditzakegu aipamen zaharrenak; mitologia klasikoan ere barra-barra agertzen dira sexu-nortasun anatomikoen eta sozialen arteko konbinazio posibleen aipamenak, baita sexu-aldaketenak ere. Antzinako Erroman, Gallae-ak ziren, Zibeleren gurtzaile. Sanskritoan, “kliba” hitza erabiltzen zen argi eta garbi ez emakumetzat, ez gizontzat har ez zitezkeen pertsonak izendatzeko. Kultura hinduan, “hijra” dira erritu bati jarraiki zikiratu eta apaizeme bihurtzen ziren gizonak; gaur egungo Indian oraindik ere bizirik dago tradizio hori.

Azterlan antropologikoetan argi ikusi da transexualitatea izan bazela eta normalizatuta zegoela iparraldeko Amerikako etnia indigenetan. Siouzentzat, “winkte” ziren; yuma etniarentzat, “elsa”; navajoentzat, “nadle”. Afrikan ere agertzen da fenomenoak hainbat tributan: Kenyako Pokot herrian, “sererr” dira; edo Madagaskarren “sarombavy”.

Erljio monoteistak gailentzen hasi zirelarik, bizitzaren ikuspegi dikotomikoa ezarri zuten eta, harrezkero, sexu biologikoekin bat ez datorren adierazpen oro ukatu eta jazartu egin izan da.

XIX. eta XX. mendeetan, mendebaldeko mundua sekularizatzearekin batera “egitate transexuala” zientifikoki aztertzeak aukera zabaldu zen. Lehenik desbideratetzat hartu zen; gero, nahasmendu mentaltzat, eta gaur egun, gaixotasun mentalen sailkapenetik ateratzeko joera eta aldarrikapena da nagusi.

2.2. KONTZEPTUAK

Jarraian, kontzeptuak zehatz-mehatz argituko ditugu; zenbaitentzat, esan beharrik gabekoa izan daitekeen arren, beste pertsona batzuentzat –osasunaren, hezkuntzaren eta gizartearen esparruetako profesionalentzat ere, agian– zehaztapen hori egitea egokia eta komenigarria izan daiteke, kontzeptuekin anabasa handia dagoela konturatu baikara.

Hasteko, “**sexu-nortasuna**” eta “**sexu-orientazioa**” bereizi behar dira. Sexu-nortasuna zera da, pertsona bera jabetzea sexu jakin batekoa dela sentitzen duela edo sexu jakin batekin identifikatzen dela. Kontzeptu horren arabera, pertsona bat zisgizon edo zisemakume izan daiteke (sentitzen duen sexua, bere buruarekin identifikatzen duen sexua bat datorrenean jaiotzean esleitutako sexuarekin), edo gizon nahiz emakume transexual izan daiteke (sentitzen duen sexua, bere buruarekin identifikatzen duena jaiotzean esleitutakoarekin bat ez datorrenean). Sexu-orientazioa, ordea, pertsona batek sentitzen duen sexu-erakarpena da; erakarpen hori, aldi berean, heterosexuala izan daiteke, (beste sexuko pertsonetikiko erakarpena